

IRAKURKETA MINTEGIA

2024-2025. ikasturteko programaren ildo nagusiak

- 0-12 urte bitarteko haurrentzako liburuak erabiliko dira.
- 2024an kaleratu diren liburuak irakurri eta aztertuko dira.

HELBURUAK

- Formazioa eskaini haur literaturan eta irakurketarako dinamizazioan.
- Liburuen balorazio irizpideak eta aurkezpen fitxak landu.
- 2024an 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat euskaraz kaleratu diren literatura obra guztiak irakurri eta bakoitzaren aurkezpen bat idaztea Galtzagorriren webgunean zintzilikatzeko.
- *Liburuen Altxorra / Liburu ibiltariak* eta beste zenbait proiektutarako liburu zerrendak osatzea.
- Urtero euskaraz haurrentzat argitaratutakoaren *kalitatea neurtzea*, estatistikak osatuz.

GIDARIAK

- Imanol Mercero, literatura kritikaria.
- Larraitz Idarreta, bibliotekaria.

DATAK, ORDUAK, LEKUA

- Donostiako Haur Liburutegi Nagusian egingo dira saioak: Fermin Calbeton, 25 (Alde zaharra).
- Saioak hilean larunbat batez: 10:00etatik 13:00etara izango dira. Egutegi zehatza:

2024	2025	
Irailaren 21a	Urtarrilaren 18a	Apirilaren 12a
Urriaren 19a	Otsailaren 15a	Maiatzaren 17a
Azaroaren 16a	Martxoaren 15a	Ekainaren 7a
Abenduaren 14a		

PROGRAMA- FORMAZIOA

Irakurketa mintegiaren ohiko saioez gain, aurten formazio saio berri bat antolatu dugu.

Piu Martinez irakurketa-bitartekaritzako eta albumaren dibulgazioko puntako adituak "Klasikoak eta albumaren egungo joerak: mezu bererako lengoia ezberdinak" formazio saioa eskainiko du.

Albuma izango da prestakuntza saio honen ardatza. Egun, haur eta gazte literaturaren (HGL) esparruan interesa pizten duten gaiak jorratzen dituzten albumak, baita ipuin klasikoak egokitu dituztenak ere behatu eta aztertuko ditugu. Halaber, albumean bat egiten duten lengoaien bidez (ilustrazioa, argazkigintza, komikia, etab.) gai horiei heltzeko modu anitzak arakatuko ditugu. Haurrei istorio zaharrak eta berriak kontatzeko forma eta formatu askotarikoetara eramango gaituen ibilbide bibliografiko bat egingo dugu.

HGLn lan egiten duten profesionaleri albumaren joera berriak zein diren ezagutaraztea izango du helburu eta literatura lantzen duten bitartekariei egongo da zuzendua.

Saio monografikoa **2024ko urriaren 26an izango da, 9:30etatik 14:30etara, San Telmo museoko ekitaldi aretoan.**

Formazio saio hau mintegikideei bereziki eskainia egongo den arren, publiko orori irekia izango da. Mintegiko kideentzat doan izango da. Bazkideek prezio berezia izango dute. Aurrerago zehaztuko zaizkizue formazio saio honen nondik norakoak eta izena emateko eman beharreko urratsak.



Galtzagorri elkartea. Zemoria kalea 25, behea. 20013 DONOSTIA.
Telef.: 943 471 487 E-maila: administrazioa@ibbygaltzagorri.eus